

Aspaldi-aspaldi, animaliek ere bazekiten berba egiten. Azeriak ume txikien modura, zer edo zer bereganatzeko. Lehoiak harro-harro, denen nagusi zela agertzeko. Behiak, apal eta mantso, esnea ez garrazteko. Ahuntzak eta ardiak duora, beeeehean ala goiaaan, non zeuden adierazteko...

Aldi hartan, animalia guztiak bizi ziren elkarrekin eta gehienetan ondo konpontzen ziren. Hala ere, tarteka, iskanbilaren bat edo beste sortzen zen beraien artean, batik bat, jana lortzeko orduan.

Handiek indarra erabiltzen zuten irabazteko. Txikiek, indarrik ezean, argudioa, trebezia, jokoa, jolasa...

Izan ere, animaliek kontu ugari sortu izan baitute beti, bizirauteko.

Kontu horiei *alegia* deitzen zaie.

*Alegiak*, animalien ipuinak.

*Alegiak*, abereen eskola.